

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Intza, Gaintza.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Intza, Gaintza.

- 186 *Adiskidetako ohea da etsaitako baño.*  
Ona da bai, baño zorrotza, zorrotzegia.
- 187 *Ago ixillik, Eguberri laugarrena!*  
Ago ixillik xoxoa, "iñoxentea". Eguberri laugarrenean (abenduarien 28'an)  
Herodesek ildako mutiko "Inozenten" jaia baita.
- 188 *Alkarren sendalaien dabilz.*  
Alkarren leian, ezta-baietan.
- 189 *Alkipe(a)n kapa, kapa alkipen.*  
Laxterka esaten oitzeko esaera zailxkoa.
- 191 *Alperrai peatuko dion langillerik ezta.*  
Alperrari ezin lanik eragin.
- 192 *Amorrai aundik txikia jan egiten du.*  
Baita kristauen artean ere jende aberatsak jende bearra, eta salerosle  
aundiak ere bai. Oihenart-ek: "Arrain handiak jaten 'tu txipiak" (35).
- 193 *Andre ona, naiz sillerako ta naiz pastarako.*  
Edozertarako da ona.
- 194 *Apirille biribille, zerrie urdandegin ille.*  
Elurte luzetan basoko urdandegietan zerria goseak iltzen. Beste zenbait  
lekutan ere bada esaera ori.
- 195 *Arbola txikin egurra erraz egiten da.*  
Maxtar xeari erraz kentzen duen apurra, eta ori egiten duena lapurra. Beste  
nonbait: arbol erorian, botaian, beratzan.
- 197 *Arri! lau zango ta bi belarri: urez ase-ta, pausoa egin zak larri.*  
Donadu zartuai beste orrenbeste egiten omen zieten askok.
- 198 *Arribe ta Atallo, urre gorritz bataio.*  
Araiz-ko bi erri oiek aberatsak eta eskuzabalak izaki nonbait.
- 199 *Arto beroaren usaia sumatzen det nik.*  
Orrako gizon ori bere buruaz mintzatzen ari da, bere burua aipatzen ta  
aupatzen.

- 200 *Askarate ta Bedaio, alkar ezin eraio.*  
Zergatik ote? Bi erri oien artean arkaitz aundia dagoelako, ala alkar ezin ikusi zutelako?
- 202 *Asto askok lasto asko.*  
Larraun-en ere ola esaten da.
- 203 *Astorik nai ez, eta zaldirik izan ez.*  
Aundinaiez deus gabe gelditu.
- 204 *A zer lokatza-nastea eldu den!*  
Itz edo egite txar batek zein ondorio txarrak ekar ditzaken!
- 205 *A zer baba-lastoa den ori!*  
Zein oillo, zein txepel.
- 206 *Azi-zabaltzallea da ori.*  
Nasketaria, bazterrak nasten dabillena.
- 207 *"Balitz eta bagenduke"-k, etxea artoz ez due betetzen.*  
Espak ateratzeak ez du iñor aberasten, bai ordea lanean azkar saiatzeak.
- 208 *Bearrean eta beltzean egiten degu.*  
Ezinbestean.
- 209 *Begiak beltzak beltzak, Mantzalin, dituzu; baño ur gorria edaten poleki dakizu.*  
Itxuraz ez, baña izanez ona denari zabaltzen zaizkio atea.
- 210 *Beretzat asko bear dunak besteri gutxi opa.*  
Alere jende bearrari eskua luzatzea ain gauza ona da!
- 211 *Besteren etxean erraz azitzen di(r)e aurrak.*  
Ortarako artzen diren nekeai gu ez oartzen...
- 212 *Besteren miñek eztu iñor iltzen.*  
Besteren miñez eta gaitzez axola gutxi.
- 213 *Bestentzat mediku, ta beretzat barbero ere ez.*
- 214 *Bost ontzurreko bat balego! -"Balego" gu baño goizago jeki zen ordea!-*  
Goiz jekiz eta azkar lan egiñez arkitzen da bost ontzurrekoa.
- 215 *Dagonean dagonarekin bear da.*  
Norbaitekin ari geranean, ari entzun ta ari begira egon bear degu.  
Anbatenez geiago Jainkoarekin ari geranean.

- 216 *Dendariak euskeraz itzegiten du.*  
Alegia, erosleai zeñi bere izkuntzan mintzatzeko; ori komeni zaio saltzalleari.
- 217 *Ekixa badik onek.*  
Zerbait uts badik onek; edo: traste onek, edo lanbide onek badik bere zailtasuna, ez duk ain erraza.
- 218 *Elur-melur, ez diat ire beldur, txabolan badiat naiko arto ta egur.*
- 219 *Emen jendea lo zegok; eta esnaratu baño len bota bear diagu arrie.*  
Emen irabazbide ona zegok eta aurrea artu bear diagu, besteak lo dauden artean.
- 220 *Erio begik argik.*  
Eriotzak askori begiak idekitzen, lotatik esnaratzen.
- 221 *Erraz alde(r)a jo du jendeak.*
- 222 *Erri-itsusia galdu du.*  
Erri edo jenden aurrerako lotsa (respeto humano) galdu.
- 223 *Erri ontako zenbait atso, gaur bezala atzo.*
- 224 *(Auzolan): etxean jan ta kanpoan lan.*  
Auzolanean ez baita jatekoa ere irabazten, eta argatik etxekotik jan bear.
- 225 *Etxeko andrea nolako, etxe-aldea alako.*
- 226 *Etziñun aditu misiolariak esan zuala, Jainkoak ezur zarrak etzitula nai?*  
*-Nereak zarrak eta gogor samarrak arrapatuko dittu ba!*  
Ez, Jainkoak esana da: "Nigana datorrenik ez dut nigandik botako", zein-ere adiñetan datorren.
- 227 *Eza, arrie baño gogorragoa.*
- 228 *Gaiztoari bi belakin argi egin bear zaio.*  
Bere gaiztakeriak egiteko illunbea billatzen duelako.
- 229 *Galdu ez galdu, itto ez itto egona naiz.*  
Iya iya itoan egona.
- 230 *Gaur egin ditekena, biarko ez utzi.*
- 231 *Gaztain mentolatzaren mokadua, arraultze gorringoaren pare.*

- 232 *Gogozko lanetan bide gogorrik ez.*
- 233 *Goiz gorri, arrats-iturri.*
- 234 *Iltzea edozeñek egiten dik: bizitzen zeudek komedik.*
- 236 *Illuntzen dunean, etxe guzietan atea itxi egiten di(r)e.*  
Askok eta asko eskatzen dutenean, atea itxi egiten zaizkie olakoei.
- 237 *Indar-beartu egiten nintzen: ola eztegu geren bururik garbitzen.*  
Geiegizko lanak bai langillea ta bai etxea ondatzen ditu.
- 238 *Itz-beste egin ta utzi nau.*  
Ezer ez baleki bezela, nik nai nuenaz mintzatu gabe, beste kontu batera aldatu ta utzi nau.
- 239 *Kale-parrandan ibiltzeko ederra ori!*  
Lanari ta eginbearrari iges egiten dio.
- 240 *Katu kutiziosoari muturre erretzen zaio.*  
Berriketa-zaleak nai ez duena entzuten du.
- 241 *Kandelera mandelera, bost illabete larrañera: sei're bai Larraun-gora, zazpi're bai Uitzikora.*  
Kandelerratik ultzietara (gari-jotzera) zenbat illabete bearko diren erri oietan.
- 242 *Karakola ta barea, a zer pareta!*  
Bi agure xar, oñak ezin errestatuz zebiltzenez esana.
- 243 *Jo ta salto, ez da negu. Jo ta malo, ori da negu.*  
Beti elur ta izotzetan dirauena, ori da zinezko negua; elur-malo = elur- luma, maluta.
- 244 *Lapiko, lapiko ona: arropak ez dik egiten gizona.*  
Bai ordea buru ta biotz onak.
- 245 *Larrutik pagatuko dik orain.*  
Okerkeria aundien bat egin duenaz.
- 246 *Makil autsiekin oien tartean ez sartu.*  
Erne ibilli oien tartean sartzerako.
- 247 *Mendiko otsoari 're ez nioke nai gaitz ori.*  
Asnasea ezin artuz itotzen zegoen batek esana.

- 248 *Merezi ez dun zaldik, bi pensu.*  
Eta merezi duena bearbada bat ere gabe; langillea goseak, eta alperra ase.
- 249 *Min dauken lekure eramaten da eskue.*
- 250 *Nai dunak ongi bizi, gaurkoa biarko utzi.*  
Gaur bear ez dena ez bota, ez ondatu: geroago beartuko zaitzu bearbada.
- 251 *Nai baduzu il senarra, emaiozu urdai zarra, gazta zarra ta ardo zarra.*  
Ori emazteari esan zion senarra, ez zebillen eriotzaren billa!
- 252 *Negarrez bildu ta parrez jan egiten ditu.*  
Nekazari apostu-zaleak ola.
- 253 *Negun iltze'ittuk, udan piztutze'ittuk: gure agure xarrak, muxarrak bezala dittuk.*
- 254 *Ni jaiio nintzen biko, eta ezin izan lauko.*  
Jaunak eman ez badit buru ta indar geiago, zer egingo dut?
- 255 *Nik ur bedeinkatua eraman nion; eztakit ziñatu ote zen.*  
Ongi ezia ta erakutsia zen, baña ez dakit zer egin duen gero.
- 256 *Oa emendik pikuetara!*  
Alde egin emendik!
- 257 *Obe da bei bat esnazue, bi antzu baño.*  
Jainkoa da iturri ezin agortua; ez dezagun utzi Bera lurreko ezdeuskeriengatik.
- 258 *Oberena, txar asko.*  
Gauza egokia ez deneko.
- 259 *Ogia ordañez pagatzen da.*  
Ongi egin digunari ongi erantzun bear zaio.
- 260 *Ollarrak bere lurrean indar izaten du.*  
Nor bere etxean nagusi.
- 261 *Oso sañete ona du.*  
Oso gusto ona du (erderaz sainete).
- 262 *Ostots-urtea, arto-urtea.*
- 263 *Otordu aurreko janak ez du etxea galtzen.*

- 264 *Otsoak ez du bere aragitik jaten.*  
Ez du otsokirik jaten; lapurrak lapurrari laztan.
- 265 *Otsokolpean egiten den lanak, ez du balio.*  
Laxterregi egiña, maiz gaizki egiña. Oihenartek: "Lan lasterra, lan alferra"  
(297).
- 266 *Pistia ere, ones onean eskura.*  
Jenden zakarrenak ere gozotasunaz ematen dire.
- 267 *Putze izan, eta puzkarra nai.*  
Ez izan, eta bai uste.
- 268 *San Pedro Nolasko: aragi gutxikin salda asko.*  
Aita Bartel ospetsu zenak esan omen zuen.
- 269 *San Bartolomek ezkerro, mendi txikik itzal aundia.*  
(San Bartolome, abuztuaren 24'an).
- 270 *Senarra il nai baduzu, uzta-aguztuan aza emaiozu.*  
Aza jateko garai txarra.
- 271 *Tellatupe batean bizi diranaz ez fiatu.*  
Zulo berean bizi diran otsoak.
- 272 *Txoroa, alain txoroa! zurtuko aiz bai. Eroxa baldin bazen, ederki zurtu zen.*
- 273 *Urrutiko intxaurrak beteak; ara orduko utsak.*
- 274 *Zaldizkoakin ari du.*  
Euria mallan-mallan, zalapartaka ari du.
- 275 *Zelaien baño ordekan landareak indar geiago.*
- 276 *Asmakizuna:*  
*Ama latza ta umea beltza. Zer ote da? Gaztaña.*
- 277 *Amorrai aundiak txikia jaten du.*  
Sal-erosle aundiak ere bai txikia.
- 278 *Aste eder, jai zikin.*  
Astez eder jantzia, jaierako zikin.
- 279 *Atallu: kopetan bi kankallu.*  
Atallu, Araitz ibarreko erria da.

- 280 *Bat: juan tarrat.*  
*Bi: mai ipurdi.*  
*Iru: zakua bete diru.*  
*Lau: katuak jango al au.*  
*Bost: kakak prost.*  
*Sei: sillen ese(r)i.*  
*Zazpi: ez da katua gaizki.*  
*Zortzi: zapela bete zorri.*  
*Bederatzi: ikulture joan ta beie jetxi.*  
*Amar: katue marmar.*  
*Amika: zakurren kanika.*  
*Amabi: plateran bi begi.*  
*Amairu: attunak amona nai du.*
- Jostaketan esaten diren farragarrikeriak.
- 281 *Buru txar, anakak nozi.*  
Ankak nozitzen ditu buru txarrak.
- 282 *Eroa, alferraren leloa.*  
Alferrak, zerbait esaten zaionean, erantzuten: Eroa! Beste batzuk esaera ori bestela esaten (eta obeki noski)
- 282 *Geroa, alferraren leloa.*  
Alferrak beti lanak gerorako uzten: gero egingo, gero joango, beti gero...
- 283 *Etxe guzietan laratza beltza.*  
Denetan izaten naigabeak eta ezbearrak.
- 284 *Gazteak ordu segurorik ez, zarrak eskaporik ez.*  
Aiek il ditezke, auek il bear.
- 285 *Gero?*  
*Otz ez dena, bero.*  
Galdetzen du denaren berri jakin nai duenak; erantzuten diote guzia esan nai ez diotenak.
- 286 *Gezurra esan nuen etxean: ni baño lenago kalean.*
- 287 *Jose: beti jaten ta beti gose.*
- 288 *Kandelario, elurra dario: san Josek lagunduko dio.*
- 289 *Ne(g)arrez bildu, ta parrez joan.*  
Askoren diruak eta bai etxealdeak ere.



- 290**      *Ontziak ordañetan izaten dira.*  
Oitura eder au bazen aspaldian.
- 291**      *Pobreen arrazoia beti sobra.*  
Jende bearraren esana askotan ez da ezertan idukitzen.
- 292**      *Tabernako neska gauean jolastuna, ta goizean lo-gura.*
- 293**      *Txiki aundiak, etxe-ondatzalle.*  
Diru gutxi izan eta etxe aundia egiten duenak, zuen guzia galtzen.
- 294**      *Zapela kaskoan, urte askoan!*  
Norbaiten urtebetetzean eta zorionak emateko.